

PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Parte Zaharrear zuntz optikoaren sare berria instalatzeko lanak hilabete amaieran hasiko dira

Lanak sei hilabetez luzatuko dira eta kaleen arabera banatutako sei fasetan egingo dira

Donostiako Udala Parte Zaharrear zuntz optikoa zabaltzeko egin beharreko lanak hasteko azken tramiteak burutzen ari da. Horiek horrela, Udalak aditzera eman du zuntz optikoaren sare berria instalatzeko lanak hilabetearen amaieran hasiko direla. Horretarako, hurrengo egunetan Parte Zaharreko auzotarrek Udalaren gutuna jasoko dute, non eta lanen faseei buruzko informazioa izango duten.

Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi Nekane Arzallusek azpimarratu du, zuntz optikoaren sare berriak Parte Zaharreko 200 jabe-erkidegok, zein tabernek, jatetxeek eta gainerako saltokiek duten telefono eta internet zerbitzua hobetuko duela.

Lanak hilabetearen amaieran hasiko dira eta Urbycolan enpresak egingo ditu; 640.651 euroko aurrekontua dute eta Europar Batasunaren Next Generation funtsen finantziakoa izango dute.

Zuntz optikoaren sarea guztiz ezartzeko epea 6 hilabetekoa da, eta lanak kale ezberdinak hartuko dituzten hainbat fasetan egingo dira. Auzoaren ekialdetik hasiko dira instalazioa egiten (Iñigo kaletik), mendenbaldetik amaitu arte.



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Hirigintza Sostengagarriko ziengotziak honakoa esan du: “Azpiegitura hau instalatzea lehenetasuna izan da Udalarentzat, auzotarrek zein merkatariak behar duten konektibitatea bermatzeko. Gainera, Parte Zaharraren kasuan, kontuan hartu behar izan da Monumentu Multzoaren izendapena duela, eta horrek, tramitazioa zein irtenbide teknikoak zaildu ditu, izan ere, lanak egiterakoan ondareari ez eragiteko irizpideak kontuan hartu behar izan dira”

Era berean, Donostiako Udalak aztertzen jarraitzen du 69 atarien egoera, izan ere, ez dute gertu telekomunikazio sarrerik. Eta halaber, telekomunikazioen operadore ezberdinekin harremanetan jarraitzen du Udalak jarriko duen azpiegituratik sarearen zabaltzea koordinatzeko.

Udalak fase bakoitzean eragina izan dezaketen auzotarrei zein merkatariari informazioa helaraziko die, lanen hasierari buruzko informazioa eta izan daitezkeen eraginak zehaztuz.

Donostian, 2022ko urriaren 19an

